«EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NEGU-PASAKO UR-HEGAZTIEN ERROLDAK, 2027KO DENBORALDIA» ZERBITZUA PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUAREN BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUEN ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Prozedura honen xedea da Hazik kontratista bat hautatzea, administrazio-klausula partikularren agiri honen karatulako 1. puntuan adierazitako zerbitzuak eman ditzan (aurrerantzean, karatula).

Zerbitzu horiek agiri honetan, preskripzio teknikoen agirian eta kontratistaren proposamenean ezarritakoaren arabera emango dira.

Kontratuaren CPV kodea karatulako 1. puntuan adierazita dago.

2. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

Erakunde kontratatzailea Hazi da (aurrerantzean, erakunde kontratatzailea).

Kontratazio-organoa karatulako 2. puntuan adierazitakoa da. Organo horrek, hala badagokio, aplikatu beharreko zuzenbide pribatuko arauen arabera, egoki deritzen pertsonei berariazko ahalmena eman ahal izango die kontratuarekin lotutako jarduketa jakin batzuk egiteko.

3. ADJUDIKAZIO-PROZEDURA

Kontratua prozedura ireki sinplifikatuaren bidez adjudikatuko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 159. artikuluarekin bat etorriz (aurrerantzean, SPKL).

4. ALDAERAK

Lizitatzaileek aldaerak aurkeztu ahal izango dituzten ala ez karatulako 3. puntuan adierazten da, hala badagokio.

Aldaerak onartzen badira, karatulako 3. puntuan adieraziko dira gutxieneko betekizunak, modalitateak eta ezaugarriak, bai eta kontratuaren xedearekiko lotura ere.

5. KONTRATU-AGIRIAK

Honako agiri hauek kontratu-izaera izango dute:

- Administrazio-klausula partikularren agiri honek eta bere karatulak.
- Preskripzio teknikoen agiriak.
- Adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintzak.
- Karatulako 4. puntuan adierazitako gainerako dokumentazioak.

Adjudikaziodunak agiri horiek sinatu beharko ditu kontratua formalizatzeko ekitaldian, haiekin ados dagoela adierazteko.

6. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena karatulako 5. puntuan adierazitakoa izango da.

7. ALDERDI EKONOMIKOAK

7.1. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua karatulako 6.1 puntuan adierazita dago.

Era berean, kontratuaren prezioa karatulako 6.1 puntuan zehazten da.

Kontratuaren prezio horrek kontratua gauzatzeko behar diren kostu guztiak hartuko ditu barne; besteak beste, adibide gisa eta zerrenda itxia izan gabe, honako hauek:

- Agiri honetan eta preskripzio teknikoen agirian ezarritakoaren arabera kontratua gauzatzeko behar diren zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak; ezin izango da gerora fakturatu azken prezioa zehazterakoan kontuan hartu beharrekoa zen kontzepturik.
- Kontratua gauzatzeari datxezkion kontzeptu guztiak eta lan horretarako erabilitako langileekin lotutako gastu guztiak (soldatak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko ordainsariak, gaueko eta jaiegunetako lana, bajen edo gaixotasunen ondoriozko ordezkapenak, norbanakoen istripu-aseguruak, etab.), bai eta zerga guztiak (BEZa salbu), aseguruak, lizentziak, garraio- eta joan-etorri gastuak, baimenak eta gainerako gastu orokorrak ere.
- Kontratistak kontratua gauzatzeko erabili behar dituen bitarteko, tresna, ibilgailu, ekipamendu, instrumentu, ekipo informatiko eta aparatu guztiak.
- Erakunde kontratatzaileak kontratua behar bezala garatu eta betetzeko zehazten dituen lan-bilera eta informazio-bilera guztietara joatea.

- Karatulako 6.1 puntuan zerrendatutako beste edozein kontzeptu.

7.2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

SPKLren 101. artikuluaren ondorioetarako, kontratuaren balio zenbatetsia karatulako 6.2 puntuan adierazitako zenbatekoa da. Balio zenbatetsi hori SPKLren 101. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu da. Aurreikuspen horrek ez dio erakunde kontratatzaileari konpromiso jakinik sortzen.

8. PREZIOAREN ORDAINKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, kontratistak dagokion faktura aurkeztu beharko du aldez aurretik.

Erakunde kontratatzaileak zerbitzuak eman diren hilabetea amaitu eta 30 egun naturaleko epean egingo du ordainketa, betiere faktura adierazitako epean egin bada eta erakunde kontratatzailearen oniritzia badu.

Ez da ordainduko agiri honetan aurreikusitako kontratuaren xedetik kanpo egindako lanik edo zerbitzurik, ezta erakunde kontratatzaileak aldez aurretik eskatu ez duenik ere, hala dagokionean.

9. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Karatulako 8. puntuan xedatutakoa aplikatuko da.

10. PUBLIZITATEA

Erakunde kontratatzailearen kontratatzailearen profilean honako hauek argitaratuko dira:

- Lizitazio-deialdiaren iragarkia.

- Kontratuaren adjudikazioaren iragarkia.

- Kontratua formalizatzearen iragarkia.

- SPKLren 63. artikuluan zerrendatutako gainerako informazioa.

Erakunde kontratatzailearen kontratatzailearen profilera webgune honen bidez sartuko da: www.contratación.euskadi.eus

SPKLren 63. artikuluan eta harekin bat datozenetan ezarritakoaren arabera, kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean egindako argitalpenek jakinarazpen ofizialaren ondorioak izango dituzte lizitatzaile eta gainerako interesdun guztientzat, eta, hala badagokio, banakako jakinarazpenak ordeztuko dituzte, berariaz besterik xedatzen ez bada.

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Ez dago.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Erakunde kontratatzailearekin kontratatu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten eta kontratatzeko debekuren batean sartuta ez dauden pertsona fisiko edo juridiko espainiarrek nahiz atzerritarrek.

Eskaintzak aurkezteko azken egunean, lizitatzaileek Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta egon beharko dute. Bestela, egun hori baino lehen erregistro horietako batean inskribatzea eskatuta izan beharko dute.

Pertsona juridikoek kontratua adjudikatzeko aukera izango dute soilik haren prestazioak beren estatutu edo fundazio-arauen arabera dagozkien helburu, xede edo jarduera-eremuan sartzen badira.

Nolanahi ere, erakunde kontratatzailearekin kontratatzeko gaitasuna izango dute Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresa ez-espainiarrek, baldin eta egoitza duten estatuko legeriaren arabera dagokion prestazioa emateko gaituta badaude; SPKLren 67. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko zaie.

Enpresa horien egoitzako estatuko legeriak prestazioa emateko baimen berezia edo erakunde jakin bateko kide izatea eskatzen badu, betekizun hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

Nazioarteko akordioetatik Espainiari eratorritako betebeharrak aplikatzeari kalterik egin gabe, Europar Batasunetik edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetatik kanpoko pertsona fisiko edo juridikoek txosten baten bidez justifikatu beharko dute enpresa atzerritarraren jatorrizko estatuak, era funtsean baliokidean, Espainiako enpresei aukera ematen diela SPKLren 3. artikuluan zerrendatutakoen pareko sektore publikoko erakundeekin kontratatzeko prozeduretan parte hartzeko. Txosten hori atzerrian dagokion Espainiako Ekonomia eta Merkataritza Bulegoak egingo du, eta aurkeztutako dokumentazioarekin batera entregatuko da.

Horretarako aldi baterako eratzen diren enpresaburuen batasunek ere kontratatu ahal izango dute erakunde kontratatzailearekin. Ez da beharrezkoa izango batasun horiek eskritura publikoan formalizatzea, harik eta kontratua haien alde adjudikatu arte; SPKLren 69. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Karatularen arabera beharrezkoa denean, lizitatzaileek Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean (ROLECE) edo, hala badagokio, dagokion Kontratisten Erregistro Ofizialean (ROC) inskribatuta egon

beharko dute —edo inskripzioa eskatuta izan beharko dute—, aplikatu beharreko araudian ezarritako baldintzetan.

Hala badagokio, lizitatzaileek gutxienez karatulako 10. puntuan adierazitako giza baliabideak eta/edo baliabide materialak atxiki beharko dizkiote kontratua gauzatzeari.

Gainera, lizitatzaileek karatulako 10. puntuan, hala badagokio, adierazitako betekizun espezifikoak bete beharko dituzte.

Lizitatzaileei kontratua gauzatzeko giza baliabide eta/edo baliabide material jakin batzuk atxikitzeko konpromisoa eskatzen bazaie, konpromiso hori funtsezko kontratu-betebeharra izango da SPKLren 211.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako; beraz, ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoi izango da, erakunde kontratatzaileak hala nahi badu.

Kontratua suntsiarazi beharrean, kontratistak kontratuari atxikitako pertsona bere kabuz aldatzen badu, erakunde kontratatzaileak hitzemandako pertsona berehala atxikitzeko eskatu ahal izango du; edo, kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik hori ezinezkoa bada, prestakuntza eta esperientzia berberak dituen beste pertsona batekin berehala ordezteko. Ordezkapen horretarako erakunde kontratatzailearen berariazko baimena beharko da.

Eskatutako baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, lizitatzaileak beste erakunde batzuen baliabideetan oinarritu ahal izango dira, haiekin dituzten loturen izaera juridikoa edozein dela ere, baldin eta kontratuaren indarraldi osoan baliabide horiek benetan izango dituztela frogatzen badute eta laguntza emango dien erakundea kontratatzeko debekuren batean sartuta ez badago.

Beste erakunde batzuen baliabideetan oinarritu nahi duten lizitatzaileek hala adierazi beharko dute gutun-azal bakarraren 1. atalean sartu beharreko erantzukizunpeko adierazpenean, lizitazioan eskatutako adierazpen-ereduaren arabera bidezkoa denean.
Gainera, eskaintzarik onena egin duen lizitatzaileak beste erakunde batzuen baliabideak erabili nahi baditu, beharrezko baliabideak izango dituela frogatu beharko du, erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztuta.

Eskaintzarik onena egin duen lizitatzaileak kontratazio-organoaren errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera 7 egun balioduneko epean aurkeztu beharko du konpromiso hori.

Klausula honetan aipatutako gaitasunari eta kontratatzeko debekurik ez izateari buruzko inguruabarrek eskaintzak aurkezteko azken egunean bete beharko dute, eta kontratua perfekzionatzeko unean ere indarrean egon beharko dute. Era berean, hitzemandako baliabideak atxikitzeari buruzko baldintzak kontratua gauzatu bitartean mantendu beharko dira.

13. PROPOSAMENAK ETA AGIRIAK AURKEZTEA

13.1. AGIRIETARAKO ETA GAINERAKO DOKUMENTAZIO OSAGARRIRAKO SARBIDEA

Agiriak eta gainerako dokumentazio osagarria lizitazio-iragarkia argitaratzen den egunetik eta proposamenak aurkezteko epe osoan egongo dira eskuragarri erakunde kontratatzailearen kontratatzailearen profilean. Agiriak eta gainerako dokumentazio osagarria bitarteko ez-elektronikoen bidez eskuratzeko aukera ematen denean, karatulako 11.1 puntuan adieraziko da.

13.2. AURKEZTEKO BITARTEKOAK

Proposamenak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako betekizunekin bat etorriz, salbu eta xedapen horren 3. apartatuan aurreikusitako inguruabarren bat gertatzen bada eta karatulako 11.1 puntuan hala adierazten bada.

Proposamenak elektronikoki aurkezteko behar diren informazioa eta zehaztapen teknikoak, zifratzea eta dataren baliozkotzea barne, Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoaren aplikazioaren webgunean adierazita daude: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa.

13.3. GUTUN-AZALEN EDO ARTXIBO ELEKTRONIKOEN EDUKIA

Lizitatzaileen proposamenak agiri honetara eta bere karatulara, preskripzio teknikoen agirira eta gainerako kontratu-dokumentaziora egokitu beharko dira. Proposamena aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak klausula guztiak baldintzarik eta inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe onartzea.

Gutun-azal edo artxibo elektroniko bakoitzak jarraian adierazitako dokumentuak izango ditu, bai eta bertan sartutako dokumentuen zerrenda zenbakitu bat ere.

Kontratua formulen bidez ebaluatu daitezkeen irizpideen arabera soilik adjudikatuko denez, proposamenak gutun-azal edo artxibo elektroniko bakar batean aurkeztuko dira, jarraian adierazitako bi ataletan banatuta. Ez da aurreikusten balio-judizioen bidez kuantifikatu beharreko irizpideei buruzko atalik.

1. gutun-azala (bakarra)

Aldez aurreko betekizunak betetzeari buruzko dokumentazioa

Lizitatzaileek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Agiri honen I. eranskin gisa sartutako ereduari egokitutako erantzukizunpeko adierazpena.
- Lizitatzaileak agiri honen 12. klausularen arabera beste erakunde batzuen baliabideak erabiltzen baditu, erakunde horietako bakoitzak ere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du.

- Aldi baterako enpresa-elkarte batean bilduta parte hartu nahi duten enpresaburuek elkartea osatzen dutenen izenak eta inguruabarrak eta bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dituzte, bai eta kontratua adjudikatuz gero aldi baterako elkartea formalki eratzeko konpromisoa hartu ere. Aldi baterako enpresa-elkartean parte hartzen duten enpresaburuek erantzukizun solidarioa izango dute, eta elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko dute, kontratutik eratorritako eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar adinako ahalmenarekin, kontratua amaitu arte. Horrek ez du eragotziko zenbateko handiko kobrantza eta ordainketetarako ahalorde mankomunatuak ematea.

Erakunde kontratatzaileak egiaztagiri guztiak edo batzuk aurkezteko eskatu ahal izango die lizitatzaileei, 1. puntuan aipatutako adierazpenaren indarraldiari edo fidagarritasunari buruzko arrazoizko zalantzak daudela uste badu, edo prozedura behar bezala garatzeko beharrezkoa bada.

Hala ere, enpresaburua Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta badago, edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu-base nazional batean agertzen bada —hala nola enpresaren espediente birtual batean, dokumentuak elektronikoki biltegiratzeko sistema batean edo aurrekalifikazio-sistema batean—, eta organo horiek doan eskuratu ahal badituzte datuok, ez du erregistro horietan jasotako datuen egiaztagiririk edo bestelako froga dokumentalik aurkeztu beharrik izango.

Formulen bidez ebaluatu beharreko irizpideei buruzko dokumentazioa

Lizitatzaileek formulen bidez ebaluatu beharreko irizpideei buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, agiri honen II. eranskin gisa erantsitako ereduari egokituta. Erakunde kontratatzaileak 1. gutun-azalaren (bakarraren) edukiaren egiazkotasuna egiaztatu ahal izango du, bai adjudikazioa baino lehen edo ondoren, bai kontratuaren indarraldian ere. Enpresak aurkeztutako datu eta inguruabar faltsuak kontratua deuseztatzeko arrazoi izan daitezke, kontratistari egotz dakiokeen ez-betetzearen ondorioz.

14. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Adjudikazio-irizpideak eta dagozkien haztapenak karatulako 12. puntuan adierazitakoak izango dira.

15. EBALUAZIO-BATZORDEA

Kontratazio-organoari karatulako 13. puntuan adierazitako kideek osatutako ebaluazio-batzordeak lagunduko dio.

16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio-batzordeak, lehenik, epearen barruan eta behar bezala aurkeztutako 1. gutun-azalean (bakarrean) jasotako aldez aurreko betekizunak betetzeari buruzko dokumentazioa kalifikatuko du. Aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitezkeen akatsak hautematen baditu, erakunde kontratatzaileak hiru egun naturaleko epea emango dio lizitatzaileari horiek zuzentzeko. Ondoren, formulak aplikatuz kuantifika daitezkeen irizpideen arabera eskaintza aztertu eta baloratuko du.

Ebaluazio-batzordeak baztertu egingo ditu administrazio-klausula partikularren agiriaren betekizunak betetzen ez dituzten eskaintzak, eta aurkeztutako proposamenen zerrenda bidaliko dio kontratazio-organoari, karatulako 12. puntuan ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera puntuazio handienetik txikienera sailkatuta; era berean, eskaintzarik onena identifikatuko du.

Proposamena egin aurretik, egokitzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu.

Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza anormalki baxua dela uste bada, karatulako 12. puntuan, hala badagokio, adierazitako parametroen arabera, ebaluazio-batzordeak SPKLren 149. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraituko dio, lizitatzaileak dagokion justifikazioa aurkez dezan horretarako bidalitako errekerimendutik 5 egun balioduneko epean.

Adjudikazio-proposamenak ez dio proposatutako lizitatzaileari inolako eskubiderik sortzen erakunde kontratatzailearen aurrean. Hala ere, kontratazio-organoak kontratua egindako proposamenaren arabera adjudikatzen ez badu, erabakia arrazoitu beharko du.

17. KONTRATUA ADJUDIKATZEA

Adjudikaziorako aukeratutako lizitatzailea hautatzeko, kontratazio-organoak, oro har, ebaluazio-batzordeak egindako proposamenari jarraitu beharko dio. Bestela, proposamenetik aldentzeko erabakia arrazoitu beharko du, eta, hala badagokio, proposamenen behin betiko sailkapena egingo du.

Kontratazio-organoak ebaluazio-batzordearen proposamena onartu ondoren, erakunde kontratatzaileak eskaintzarik onena egin duen lizitatzaileari eskatuko dio, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik 10 egun balioduneko epean, honako dokumentazio hau aurkezteko:

1. Eskaintzak aurkezteko azken egunean erakunde kontratatzailearekin kontratatzeko legez ezarritako baldintza guztiak betetzen zituela, eta agiri honen 12. klausulan eskatutako gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez izateari buruzko betekizun guztiak betetzen zituela egiaztatzen duen dokumentazioa, jarraian adierazitako moduan.

   Proposamena aldi baterako enpresa-elkartean bilduta parte hartu nahi duten enpresaburuek egin badute, aipatutako dokumentazioak elkartea osatuko duten enpresa guztiei buruzkoa izan beharko du.

   (i) Eskaintzak aurkezteko azken egunean Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa

Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta zegoela egiaztatzen duen indarreko ziurtagiriaren kopia, erregistroa kudeatzen duen organoak emana. Inskripzio-ziurtagiriarekin batera, lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, ziurtagirian jasotako inguruabarrak aldatu ez direla adieraziz. Bestela, bi erregistro horietako batean inskripzio-eskaera egin dela egiaztatzea nahikoa izango da.

Ziurtagiri hori kontratazio-organoak doan eskuratu ahal badu, lizitatzaileak ez du ziurtagiriaren kopiarik aurkeztu beharko; hori dagokion errekerimenduan adieraziko da.

(ii) Lizitatzailea SPKLren 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuetan sartuta ez dagoela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

(iii) Karatulako 10. puntuan, hala badagokio, adierazitako betekizun espezifikoak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

2. Hala badagokio, kontratuari atxikitzeko hitzemandako giza baliabideak eta baliabide materialak benetan eskuragarri daudela egiaztatzen duen dokumentazioa.

(i) Kontratua gauzatzeko atxikiko diren giza baliabideei dagokienez, aukeratutako lizitatzaileak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Kontratua gauzatzeko atxikitako talde osoa izen-abizenez identifikatzea, eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatzen duten curriculum vitae fitxekin batera:

  1. Titulazio akademiko ofiziala.

  2. Dagokion arloko esperientzia.

  3. Erakunde kontratatzaileak, hala badagokio, eskatzen duen beste edozein alderdi.

- Giza baliabide horiek guztiak benetan eskuragarri daudela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Jakinarazten da, datuen babesari buruzko araudi aplikagarrian aurreikusitakoaren arabera eta giza baliabideei buruzko dokumentazio horrek duen informazioaren izaera kontuan hartuta, (i) informazio hori biltzea eta erabiltzea lizitatzaileak, tratamenduaren arduradun gisa, egindako datu-tratamendua izango dela; eta (ii) klausula honetan aurreikusitakoa betetzeko informazioa erakunde kontratatzaileari ematea lizitatzaileak, datu-lagatzaile gisa, egindako datu-komunikazioa izango dela.

Horretarako, aukeratutako lizitatzaileak aurreko paragrafoan aipatutako datu-tratamenduari eta datu-komunikazioari buruz datuak babesteko araudi aplikagarritik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu. Bereziki,

eta tratamenduaren arduradun gisa dituen gainerako betebeharrei kalterik egin gabe, aukeratutako lizitatzaileak, bere erantzukizunpean, interesdunen baimen informatua lortu beharko du datuak komunikatu ahal izateko; erakunde kontratatzaileak eskatzen dionean, behar bezala egiaztatu beharko du hori.

(ii) Kontratua gauzatzeko atxikiko diren baliabide materialei dagokienez, halakorik bada, aukeratutako lizitatzaileak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Baliabide materialak identifikatzea, eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera.

- Baliabide material horiek guztiak benetan eskuragarri daudela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Erakunde kontratatzaileak eskubidea izango du egokitzat jotzen dituen egiaztapenak egiteko edo lizitatzaileek emandako informazioaren egiazkotasuna egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio gehigarria eskatzeko.

3. Hala badagokio, eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimena eta/edo baliabideak erabili nahi dituela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

4. Hala badagokio, aldi baterako enpresa-elkartea legez eratu dela egiaztatzea. Elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko da, kontratua amaitu arte kontratutik eratorritako eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar adinako ahalmenarekin.

Erakunde kontratatzaileak eskubidea izango du egokitzat jotzen dituen egiaztapenak egiteko edo lizitatzaileek emandako informazioaren egiazkotasuna egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio gehigarria eskatzeko. Aurkeztutako dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsak hautematen baditu, erakunde kontratatzaileak 3 egun naturaleko epea eman ahal izango dio lizitatzaileari akatsak zuzentzeko.

Dokumentazioa aurkezteko errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, edo aurkeztutako dokumentazioak zuzendu ezin diren akatsak edo hutsuneak baditu, lizitatzaileak eskaintza erretiratu duela ulertuko da. Orduan, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 (BEZa kanpo) eskatuko zaio zigor gisa, eta sailkapenaren arabera hurrengo lizitatzaileari eskatuko zaio dokumentazio bera.

Kontratazio-organoak ebazpen arrazoitu baten bidez erabakiko du adjudikazioa, eta 15 egun naturaleko epean argitaratuko da erakunde kontratatzailearen kontratatzailearen profilean.

18. KONTRATUA PERFEKZIONATZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzen denean perfekzionatuko da. Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den agiri pribatu batean formalizatuko da. Agiri horretan ezin izango da inola ere kontratazioaren baldintzak aldatzen dituen klausularik sartu. Nolanahi ere, adjudikaziodunak kontratua eskritura publikoan jasotzeko eskatu ahal izango du, horrek eragindako gastuak bere gain hartuta.

Agiri honen 10. klausulan xedatutakoarekin bat etorriz, adjudikazioa kontratatzailearen profilean argitaratzeak jakinarazpen ofizialaren ondorioak izango ditu lizitatzaile eta gainerako interesdunentzat, SPKLren 63. artikuluan eta harekin bat datozenetan ezarritakoaren arabera
.
Kontratua aipatutako argitalpenaren ondorengo gehienez 15 egun balioduneko epean formalizatuko da. Kontratua formalizatu dela, dagokion kontratuarekin batera, kontratua perfekzionatu eta 15 egun naturaleko epean argitaratuko da erakunde kontratatzailearen kontratatzailearen profilean.

Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua adierazitako epean formalizatzen ez bada, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa (BEZa kanpo) eskatuko zaio zigor gisa, eta lehenik behin betiko bermearen kontura ordainduko da, SPKLren 71. artikuluaren 2. apartatuko b) letran ezarritakoari kalterik egin gabe. Kasu horretan, eskaintzen sailkapenean hurrengo postuan dagoen lizitatzaileari adjudikatuko zaio kontratua, agiri honen 17. klausulan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren. Hamar egun balioduneko epea emango zaio dokumentazio hori aurkezteko.

19. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio-organoak kontratuaren arduradun bat izendatuko du. Haren eginkizunak izango dira kontratuaren gauzatzea gainbegiratzea eta hitzartutako prestazioa behar bezala egiten dela bermatzeko beharrezko erabakiak hartzea eta jarraibideak ematea, erakunde kontratatzaileak emandako eskumenen esparruan.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, erakunde kontratatzaileari lotutakoa edo kanpokoa. Kontratuaren arduradunaren jarraibideak nahitaez bete beharko ditu kontratistak.

20. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua honako baldintza hauen arabera gauzatuko da:

- Kontratistak kontratua haren termino eta baldintzen arabera gauzatuko du, administrazio-klausula partikularren agiri honetan eta bere karatulan, preskripzio teknikoen agirian eta kontratistak aurkeztutako eskaintzan xedatutakoaren arabera, bai eta kontratua interpretatzean erakunde kontratatzaileak kontratistari ematen dizkion jarraibideen arabera ere.

- Kontratuak lan-arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta osasunean aplikatzekoak diren indarreko lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapenak bete beharko ditu.

  Gainera, kontratua adjudikatu ondoren langile horiei benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen zaion informazio guztia eman beharko du kontratistak.

  Kontratua gauzatu bitartean, kontratistak langile bakoitzari dagokion lanbide-kategoriaren arabera aplikatu beharreko sektoreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko dio, eta ordaindutako soldata ezingo da inola ere hori baino txikiagoa izan.

  Atal honetan xedatutakoa gauzatzeko baldintza berezia eta funtsezko betebeharra izango da SPKLren 211.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako; beraz, baldintza hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoi izango da, erakunde kontratatzaileak hala nahi badu.

- Kontratua kontratistaren arrisku eta menturan gauzatuko da.

- Erakunde kontratatzaileak edozein unetan eta edozein bitartekoren bidez kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu ahal izango ditu kontratu-betebeharrak behar bezala betetzen direla eta kontratua egoki gauzatzen dela. Horretarako, egokitzat jotzen duen kanpoko laguntza eska dezake kontratu-betebeharren betetze egokia edo lanen kalitate-maila egokia egiaztatzeko edo auditatzeko.

  Kontratistak zerbitzuekin lotuta eskatzen zaizkion datu guztiak emango dizkio erakunde kontratatzaileari, behar den laguntza osagarririk kobratu gabe, eta, horretarako, kontratatutako zerbitzuekin lotutako lan-, administrazio- edo bestelako dokumentazioa eskuratzeko aukera ere emango du. Kontratistak ez ditu eragotziko erakunde kontratatzailearen ikuskapen- eta kontrol-lanak. Hala ere, erakunde kontratatzaileak ez-betetzerik edo eragozpenik antzematen badu, zuzenean jakinaraziko dio kontratuaren arduradunari; azken horri dagozkio zerbitzua ematen duten langileak antolatzeko, gainbegiratzeko eta, hala badagokio, zigortzeko azken eskumenak.

- Langile guztiak kontratistaren mende baino ez dira egongo. Kontratista izango da enplegatzaile izaerari dagozkion eskubide eta betebeharrak dituen bakarra, eta lan-harreman horien edo gainerako betebeharren ondorioz ezin izango zaio erakunde kontratatzaileari erreklamaziorik egin. Ondorio horietarako, kontratistak betebehar hauek hartuko ditu bere gain:

  1. Kontratua gauzatzera atxikitako lantaldea osatuko duten langileak hautatzea, agirietan, hala badagokio, eskatutako titulazio- eta esperientzia-betekizunak betetzen badituzte; erakunde kontratatzaileak betekizun horiek betetzen direla egiaztatzeko eskubidea izango du.

  2. Kontratistak lantaldearen egonkortasuna zainduko du, eta haren osaeran izaten diren aldaketak puntualak eta arrazoi justifikatuengatikoak izatea

sustatuko du, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez oztopatzeko. Erakunde kontratatzailea une oro informatuko du.

3. Kontratistak kontratua gauzatzeko lantaldea osatzen duten langileen gainean enpresa orori dagokion zuzendaritza-ahalmena benetan, eraginkortasunez eta etengabe erabiltzeko betebeharra hartuko du bere gain. Bereziki, soldatak negoziatu eta ordaintzea, baimenak, lizentziak eta oporrak ematea, baja edo absentzien ondoriozko ordezkapenak egitea, Gizarte Segurantzako legezko betebeharrak betetzea —kotizazioak eta, hala dagokionean, prestazioak ordaintzea barne—, lan-arriskuen prebentzioko legezko betebeharrak betetzea, diziplina-ahalmena erabiltzea eta langilearen eta enplegatzailearen arteko kontratu-harremanetik eratorritako gainerako eskubide eta betebehar guztiak hartuko ditu bere gain.

4. Kontratistak bereziki zainduko du kontratua gauzatzera atxikitako langileek agiri hauetan kontratuaren xede gisa mugatutako jarduerari dagozkion eginkizunak ez gainditzea.

5. Kontratistak bere plantillako koordinatzaile tekniko edo arduradun bat gutxienez izendatu beharko du. Pertsona horrek betebehar hauek izango ditu:

   a) Erakunde kontratatzailearekiko kontratistaren solaskidea izatea eta, kontratua gauzatzetik sortutako gai guztietan, alde batetik kontratistaren eta kontratuari atxikitako lantaldearen eta, bestetik, erakunde kontratatzailearen arteko komunikazioa bideratzea.

   b) Kontratua gauzatzeko langileen artean lana banatzea eta kontratatutako zerbitzua emateko behar diren aginduak eta lan-jarraibideak ematea.

   c) Lantaldeko langileek agindutako eginkizunak behar bezala betetzen dituztela gainbegiratzea eta langile horien laneratzea kontrolatzea.

   d) Kontratua gauzatzera atxikitako langileen oporrak antolatzea. Horretarako, kontratistak erakunde kontratatzailearekin behar bezala koordinatu beharko du, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez oztopatzeko.

   e) Kontratua gauzatzera atxikitako lantaldearen osaeran izaten diren behin-behineko edo behin betiko aldaketen berri ematea erakunde kontratatzaileari.

Kontratua gauzatzen duten langileekin —bereekin nahiz azpikontratatutakoekin— lotutako ezbehar edo erreklamazio ororen (judiziala nahiz judizioz kanpokoa) erantzule bakarra kontratista izango da. Erakunde kontratatzaileak ez du bere gain hartuko kontratistak zuzenean edo zeharka sortutako lan-arloko (laneko segurtasun, higiene eta osasunari dagozkionak barne), Gizarte Segurantzako edo zerga-arloko inolako erantzukizunik. Era

berean, kontratua gauzatzearen ondoriozko ezbeharretatik erator daitezkeen erantzukizunak kontratistak bakarrik hartuko ditu bere gain.

- Kontratistak bere lokal edo instalazioetan gauzatu beharko du kontratua, salbu eta karatulan eta/edo preskripzio teknikoen agirian zerbitzuak erakunde kontratatzailearen lokal edo instalazioetan eman behar direla adierazten bada. Kasu horretan, erakunde kontratatzaileak bere langileenak ez bezalako lan-eremuak jarriko ditu kontratistaren eskura, eta kontratistak zaindu beharko du kontratua gauzatzera atxikitako langileek esleitutako kokapena errespetatzea. Kontratuaren xedearen izaeragatik zerbitzuak erakunde kontratatzailearen lokal edo instalazioetan eman behar badira, kontratistak zerbitzua hasi aurretik egiaztatu beharko du kontratuari atxikitako langileak Gizarte Segurantzan afiliatuta eta alta emanda daudela.

- Klausula honetan hartutako betebeharrak kontratistak ez betetzearen ondorioz erakunde kontratatzaileari kontratistarekin batera zenbateko batzuk modu solidarioan ordaintzeko kondena ezartzen bazaio, ordaindutako zenbatekoa kontratistari jasanaraziko zaio. Horretarako, erakunde kontratatzaileak beharrezkoak eta egokiak diren administrazio- edo epaiketa-akzio guztiak egikaritzeko eskubidea gordetzen du, ordaindutako zenbatekoak osorik berreskuratu arte.

- Kontratistak datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamendutik eta kontratuaren indarraldian aplikatzekoak diren datuen babesari buruzko gainerako arauetatik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu, bere jardueraren barruan bere kontura eta erabakiz, tratamenduaren arduradun gisa, egiten dituen datu pertsonalen tratamenduei dagokienez. Betebehar horrek ez dio kalterik egingo karatulako 16. puntuan, hala badagokio, erakunde kontratatzailearen konturako datu pertsonalen balizko tratamenduari buruz berariaz ezartzen denari.

- Kontratistak karatulako 15. puntuan, hala badagokio, berariaz adierazitako baldintzak bete beharko ditu.

21. FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK

Honako hauek izango dira funtsezko kontratu-betebeharrak:

- Kontratuaren betebehar nagusia betetzea, kontratuaren klausuletan, agiri honetan eta preskripzio teknikoen agirian ezarritakoa zorrotz errespetatuz.

- Lan-arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta osasunean aplikatzekoak diren indarreko lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapenak betetzea, agiri honen 20. klausulako bigarren marratxoan jasotako baldintzetan. Horren esparruan, kontratistak langile bakoitzari dagokion lanbide-kategoriaren arabera aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan ezarritako soldata ordaindu beharko dio kontratua gauzatu bitartean, eta soldata hori ezingo da inola ere txikiagoa izan.

- Kontratistaren eskaintzan hitzemandako giza baliabideak eta/edo baliabide materialak kontratua gauzatzera atxikitzea.

- Jarduera garatzeko beharrezko lizentzia eta baimen guztiak bere kontura eskuratzea.

- Zerbitzuak une bakoitzean aplikatu beharreko sektoreko araudian xedatutakoaren arabera ematea. Horretarako, kontratistak eta haren langileek une bakoitzean indarrean dagoen araudiak eskatutako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzen duten ziurtagiri guztiak eduki beharko dituzte, hala badagokio.

- Kontratua gauzatzen den bitartean gutxienez agiri honen 25. klausulan kontratistari eskatutako estaldurak eta aseguruak kontratatzea edo mantentzea.

- Kontratua gauzatzeko beharrezko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galera guztiak ordaintzea.

- Kontratua behar bezala garatzeko eta betetzeko erakunde kontratatzaileak beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak ematea, hala nola lan-bileretara edo informazio-bileretara joatea, ordainketa gehigarririk jasotzeko eskubiderik gabe. Betebehar hori kontratua amaitu arte mantenduko da.

- Greba gertatuz gero zerbitzuak ematen jarraitzea. Zerbitzu horiek bermatzen ez badira, erakunde kontratatzaileak horiek estaltzeko behar diren kontratuak sustatu ahal izango ditu, eta kontratu horien zenbatekoa kontratistaren fakturaziotik kenduko du.

  Greba-aldian benetan emandako zerbitzuei dagokien prezioa baino ez da ordainduko.

- Langile batek bere eginkizunak behar den arretaz eta eraginkortasunez betetzen ez baditu, beharrezko gaitasunik ez badu, zerbitzuak ematean arduragabekeriaz jokatzen badu edo kontratuaren garapen egokiari kalte egiten dioten ekintzak egiten baditu, langile hori ordeztea, erakunde kontratatzailearen errekerimendutik gehienez 24 orduko epean. Langileen ordezkapenek ez diote erakunde kontratatzaileari inolako erantzukizunik sortuko kontratistak langile horiekin dituen harremanei dagokienez. Ordezko langileek lanean hasi aurretik dagokien baimena dutela egiaztatu beharko dute.

- Gaixotasun-bajek, oporrek, baimenek, lizentziek edo istripuek eragindako lan-absentziak estaltzeko langileak ordeztea, gehienez 24 orduko epean, kontratatutako zerbitzuak benetan eta etenik gabe ematea bermatuz.

- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legearen testu bategina onartzen duen 1/2023 Legegintzako Dekretua betez, sortzen diren dokumentu guztietan hizkera ez-sexista erabiliko dela bermatuko da. Argitaratzen diren irudietan ez dira pertsonak beren sexuaren arabera giza duintasunean txikiago edo

handiago gisa edo sexu-objektu huts gisa aurkeztuko; estereotipo sexistak saihestuko dira eta sexu-, rol- eta genero-identitateen aniztasuna sustatuko da.

- 50 langile edo gehiago dituzten enpresek berdintasun-plan bat izan behar dute, baita lan-agintaritzak ezarritako zehapen baten ondorioz edo aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboak hala xedatuta behartuta dauden enpresek ere (1/2023 Legegintzako Dekretua).

- Zerbitzua emateak enpresa adjudikaziodunak kontratuaren esku jartzen dituen langileen eta herritarren arteko harreman zuzena badakar, enpresak bermatu beharko du herritarrekin harremanak dituzten eginkizunetarako jarritako pertsonek euskaraz eta gaztelaniaz behar bezala artatzeko gaitasuna dutela, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzko 19/2024 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.

- Adjudikaziodunak une oro errespetatu beharko du arau-maila guztietan (Europar Batasuna, Estatua, autonomia-erkidegoa eta toki-eremua) aplikatu beharreko legeria, bai lanak hastean indarrean dagoena, bai kontratuaren indarraldian onartu eta aplikatzekoa dena. Horregatik, kontratuan aurreikusitako lanak egiteari eragin diezaioketen ingurumen-betekizunak ezagutu beharko ditu. Era berean, baliabideak eraginkortasun handiagoz erabiliko ditu, ingurumen-inpaktua ahalik eta txikiena izan dadin.

- Agiri honetan, karatulan eta/edo aplikatu beharreko legerian datuen babesari buruz ezarritako betebehar guztiak betetzea eta betetzen direla behar bezala egiaztatzea.

- Karatulako 15. puntuan, hala badagokio, berariaz adierazitako betebeharrak betetzea.

Klausula honetan eta karatulako 15. puntuan aurreikusitako betebeharrak funtsezko kontratu-betebeharrak izango dira SPKLren 211.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako; beraz, haiek ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoi izango da, erakunde kontratatzaileak hala nahi badu.

22. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratistak datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamendutik eta kontratuaren indarraldian aplikatzekoak diren datuen babesari buruzko beste edozein arautatik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu. Betebehar horrek ez dio kalterik egingo karatulako 16. puntuan, hala badagokio, erakunde kontratatzailearen konturako datu pertsonalen balizko tratamenduari buruz berariaz ezarritakoari.

Erakunde lizitatzaileen ordezkari diren pertsona fisikoen identifikazio- eta harreman-datu pertsonalak, zerbitzua emateko behar diren lantaldeetako pertsonenak eta, hala badagokio, kontratuaren xede diren jarduerak gauzatzeko beharrezkoa den datu-

lagapena, haien arteko kontratu-harreman juridikoan oinarrituta kudeatuko dira. Harreman hori tratamendua gaitzen duen oinarri juridikoa da 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.b) artikuluaren arabera; era berean, 6.1.c) artikuluko legezko betebeharrak betetzean oinarrituko dira.

23. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETUA GORDETZEKO BETEBEHARRA

Informazio publikoa eskuratzeko eskubideari buruz indarrean dagoen legerian eta SPKLk adjudikazioaren publizitateari eta hautagaiei eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz ezartzen dituen xedapenetan aurreikusitakoari kalterik egin gabe, erakunde kontratatzaileak ezin izango du zabaldu lizitatzaileek eskaintza aurkeztean konfidentzialtzat jo duten informazioa. Konfidentzialtasunak, besteak beste, sekretu tekniko edo komertzialei, eskaintzen alderdi konfidentzialei eta lizitazio honetan edo gerokoetan lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informaziori eragiten die.

Kontratistak kontratua gauzatzearen ondorioz eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko du, baldin eta agirietan edo kontratuan halakotzat jo bada edo bere izaeragatik konfidentzial gisa tratatu behar bada. Konfidentzialtasun-betebehar hori karatulako 17. puntuan adierazitako epean mantenduko da.

24. ERANTZUKIZUNA

Kontratistak egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna izango du, bai eta kontratua gauzatzean izandako omisio, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrek erakunde kontratatzaileari edo hirugarrenei eragindako ondorioena ere. Kontratua gauzatzeko behar diren eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galera guztiak ordaintzea kontratistaren betebeharra izango da.

25. ASEGURUAK

Kontratistak, bere kontura eta kontratuaren iraupen osorako, karatulako 19. puntuan adierazitako aseguruak kontratatuko ditu, bertan ezarritako baldintzetan.

26. ZIGORRAK

a) Atzerapenagatiko zigorrak

Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik agiri honetan eta/edo karatulan ezarritako epeetako bat betetzeko atzerapena gertatzen bada, erakunde kontratatzaileak bi aukeren artean hautatu ahal izango du: kontratua suntsiaraztea, agiri honen 33. klausulan ezarritakoaren arabera, edo kontratua gauzatzen jarraitzea. Bigarren kasu horretan, bidezko diren kalte-galeren ordainketaz gain, karatulako 20. puntuan adierazitako zigorrak sortuko dira erakunde kontratatzailearen alde.

Kontratista berandutzan egoteko, ez da beharrezkoa izango erakunde kontratatzaileak aldez aurretik errekerimendurik egitea.

b) Kontratatutako prestazioak behar bezala ez gauzatzeagatiko edo gainerako kontratu-baldintzak ez betetzeagatiko zigorrak.

Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratatutako prestazioak behar bezala gauzatzen ez badira edo beste kontratu-baldintzaren bat betetzen ez bada, erakunde kontratatzaileak bi aukeren artean hautatu ahal izango du: kontratua suntsiaraztea, agiri honen 33. klausulan ezarritakoaren arabera, edo gauzatzen jarraitzea. Bigarren kasuan, bidezko diren kalte-galeren ordainketaz gain, karatulako 20. puntuan adierazitako zigorrak sortuko dira erakunde kontratatzailearen alde.

Zigorrak kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa eman beharreko zenbatekoetatik kenduz kobratuko dira, edo, haietatik ezin badira kendu, bermearen kontura. Bermea gainditzen duen zenbatekoa dagokion erreklamazioaren bidez eskatuko da.

Nolanahi ere, kontratua suntsiaraztea nahiz gauzatzen jarraitzea erabaki, erakunde kontratatzaileak alde bakarrez erabaki ahal izango du kontratuarekin beharrezkotzat jotzen duen denboran jarraitzea, bere baliabideekin edo hirugarrenenekin. Bi kasuetan jarraipenaren kostua kontratistari jasanaraziko zaio, klausula honetan aurreikusitako kalte-galeren ordainketari eta gainerako ondorioei kalterik egin gabe.

27. JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA

Kontratistak, bere kontura eta baimendutako iturrietatik, zerbitzuak emateko agiri honetan eta preskripzio teknikoen agirian ezarritakoaren arabera atxiki, ekarri eta/edo mantendu behar dituen ekipo informatikoen (hardwarea eta softwarea) edo beste edozein motatako ekipo eta/edo baliabide osagarrien lizentziak eta erabilera- eta/edo ustiapen-eskubideak lortu beharko ditu.

Era berean, kontratazio honi erabat aplikatuko zaio SPKLren 308.1 artikuluan xedatutakoa. Horrenbestez, kontratuaren xede diren zerbitzuak gauzatzearen emaitzaren jabetza, osorik nahiz edozein fasetan, erakunde kontratatzailearena bakarrik izango da. Horrek ez die kalterik egingo kontratistari egokitu dakizkiokeen egile-eskubide moralei eta/edo asmatzaile gisa aitortua izateko eskubideari, jabetza intelektualaren legearen testu bategina onartzen duen 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan eta/edo Patenteei buruzko 24/2015 Legean ezarritakoaren arabera; erakunde kontratatzaileak eskubide horiek behar bezala errespetatu beharko ditu.

Ondorioz, eta karatulako 18. puntuan, hala badagokio, berariaz ezartzen denari kalterik egin gabe, kontratistak bermatu beharko dio erakunde kontratatzaileari kontratuaren xede diren zerbitzuen emaitza modu baketsuan erabiltzeko aukera. Horretarako, beharrezkoa bada, emaitza osatzen duen edozein elementuren gaineko lizentzia eta eskubide egokiak legez eta baimendutako iturrietatik eskuratu beharko ditu. Emaitza entregatzean adierazi beharko du ez dagoela erakunde kontratatzaileari kontratazio honen ondorioz dagozkion eskubideak kaltetzen dituen inolako konpromiso edo kargarik.

Nolanahi ere, kontratuaz kanpoko hirugarrenek jabetza intelektualari eta/edo industrialari buruz egin ditzaketen erreklamazio guztien erantzule izango da kontratista, honako hauei dagokienez:

- Zerbitzuak ematean jabetza industrialeko edo intelektualeko eskubideek babestutako materialak, tresnak eta bestelako lanabesak erabiltzea.

- Kontratazio honen xede diren zerbitzuen emaitza eta/edo haren parte den edozein elementu.

Aurrekoa kontuan hartuta, kontratistak erakunde kontratatzaileari ordaindu beharko dizkio kontzeptu horiei buruzko erreklamazioek eragin diezazkioketen kalte-galera guztiak.

28. KONTRATUAREN LAGAPENA

SPKLren 98. artikuluko kontratistaren ondorengotza-kasuetatik kanpo, kontratuaren subjektua lagapen bidez bakarrik aldatu ahal izango da, klausula honetan ezarritako mugen barruan eta karatulako 21. puntuan aukera hori berariaz aurreikusten bada. Lagapenerako, SPKLren 214.2 artikuluko a), b), c) eta d) letretan eskatutako betekizunak bete beharko dira, hau da:

a) Kontratazio-organoak lagapena aldez aurretik eta berariaz baimentzea, SPKLren 214.2.a) artikuluan adierazitako moduan. Baimen-eskaerari buruzko ebazpena jakinarazteko epea 2 hilabetekoa izango da; epe hori igarotakoan, baimena emandakotzat joko da.

b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren gutxienez % 20 gauzatuta izatea, SPKLren 214.2.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

c) Lagapen-hartzaileak sektore publikoko erakundeekin kontratatzeko gaitasuna eta eskatutako kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta tekniko edo profesionala izatea, eta kontratatzeko debeku-arrazoiren batean ez egotea, SPKLren 214.2.c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

d) Adjudikaziodunaren eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatzea, SPKLren 214.2.d) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Lagapen-hartzailea lagatzaileari zegozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

29. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du prestazioaren zati bat egitea, klausula honetan eta SPKLren 215. artikuluan xedatutakoaren arabera, karatulako 22. puntuan, hala badagokio, adierazitako prestazioak izan ezik.

Kontratistak azpikontratuak egiteko asmoa idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari, kontratua adjudikatu ondoren eta, beranduenez, gauzatzen hasten

denean. Horretarako, azpikontratatu nahi duen prestazioaren zatia, azpikontratistaren identitatea, harremanetarako datuak eta legezko ordezkariarena edo ordezkarienak adierazi beharko ditu. Era berean, azpikontratistak lana egiteko duen gaitasuna behar bezala justifikatu beharko du, haren baliabide teknikoak, giza baliabideak eta esperientzia aipatuz, eta SPKLren 71. artikuluaren arabera kontratatzeko debekuren batean sartuta ez dagoela egiaztatuz.

Kontratista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari informazio horretan kontratu nagusia gauzatu bitartean gertatzen den edozein aldaketa, eta azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazio guztia. Azpikontratistak azpikontratatutako kontratu-zatia egiteko sailkapen egokia badu, inguruabar hori jakinaraztea nahikoa izango da haren gaitasuna egiaztatzeko.

Azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiaztatu ahal izango da, baldin eta azpikontratua larrialdi bati erantzuteko edo presako neurriak hartzeko beharrezkoa bada eta hori behar bezala justifikatzen bada.

Azpikontratistak kontratista nagusiaren aurrean baino ez dira behartuta egongo. Beraz, kontratista nagusiak izango du erakunde kontratatzailearen aurrean kontratuaren gauzatzearen erantzukizun osoa, agiriak eta kontratuaren baldintzak zorrotz betez; hor sartzen da SPKLren 201. artikuluan aipatutako ingurumen-, gizarte- eta lan-arloko betebeharrak betetzea ere.

Erakunde kontratatzaileak kontratista nagusiak egindako azpikontratuen berri izateak ez du aldatuko kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboa. Azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzea eta ordainketa horiek egiaztatzea SPKLren 216. eta 217. artikuluetan xedatutakoaren arabera egingo dira.

30. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio-organoak SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan aldatu ahal izango du kontratua. Horrez gain, karatulako 23. puntuan aukera hori berariaz aurreikusten bada, kontratazio-organoak kontratua aldatu ahal izango du bertan ezarritako termino eta baldintzen arabera.

Kontratuaren aldaketek ezingo dute ekarri kontratuan aurreikusi gabeko unitateko prezio berriak ezartzea. Kontratuaren aldaketak SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira.

31. HARRERA

Kontratistak kontratua betetzat joko da kontratuaren arabera eta erakunde kontratatzailearen gogobetetasunerako prestazio osoa egin duenean.

Hala badagokio, harrera partzial bakoitzean eta harrera osoan, erakunde kontratatzaileak zehaztuko du kontratistak egindako prestazioa bat datorren hura gauzatu eta betetzeko ezarritako preskripzioekin. Beharrezkoa bada, kontratatutako prestazioak egiteko eta harreran hautemandako akatsak zuzentzeko eskatuko du.

Egindako lanak kontratatutako prestaziora egokitzen ez badira, kontratistari egotz dakizkiokeen akatsengatik, erakunde kontratatzaileak prestazioa baztertu ahal izango du, ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratuz edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izanez. Horrek ez dio kalterik egingo 26. klausulan aurreikusitakoari, eta erakunde kontratatzaileak dagozkion zigorrak eta kalte-galeren ordaina eskatu ahal izango ditu, atzerapenagatik, kontratatutako prestazioak behar bezala ez egiteagatik eta/edo gainerako kontratu-baldintzak ez betetzeagatik.

32. KONTRATUA ETETEA

Erakunde kontratatzaileak kontratua eten ahal izango du, baldin eta kontratistari SPKLren 208.2 artikuluan aurreikusitako kalte-galerak ordaintzen badizkio; artikulu hori berariaz aplikagarritzat jotzen da ondorio horietarako.

33. KONTRATUA AZKENTZEA

Kontratua betetzearen edo jarraian araututako moduan suntsiaraztearen ondorioz azkenduko da. Honako hauek izango dira kontratua suntsiarazteko arrazoiak, erakunde kontratatzailearen borondatez:

a) Konkurtso-deklarazioa edo beste edozein prozeduratan kaudimengabezia-deklarazioa izatea.

b) Kontratistak epeak betetzeko atzerapena izatea.

c) Kontratuaren betebehar nagusia ez betetzea.

d) Funtsezkotzat jo diren gainerako betebeharrak ez betetzea.

e) Hasieran adostutako baldintzetan prestazioa gauzatu ezin izatea, agiri honetan aurreikusitakoaren arabera kontratua aldatzea ezinezkoa denean.

f) Kontratua gauzatzen ari den bitartean kontratistak lan horretan diharduten langileei soldatak ez ordaintzea, edo langile horiei aplikatzen zaizkien hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak ez betetzea.

g) Oro har, kontratu-betebeharrak ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

h) SPKLren 313. artikuluaren 1. apartatuan ezarritako kontratua suntsiarazteko arrazoiak; berariaz adierazten da haiek aplikagarriak direla. Honako hauek dira:

   1. Zerbitzuak ematen hasi aurretik kontratuari uko egitea, edo kontratazio-organoari egotz dakiokeen arrazoi batengatik kontratuaren hasiera lau hilabete baino gehiagoz etetea, kontratuan hasteko ezarritako egunetik aurrera.

2. Zerbitzua ematen hasi ondoren kontratuari uko egitea, edo kontratazio-organoak kontratua zortzi hilabete baino gehiagoz etetea.

Klausula honetan aurreikusitako suntsiarazteko arrazoietako edozein gertatzen bada, suntsiarazpenak automatikoki izango du eragina, eta baldintza bakarra izango da erakunde kontratatzaileak kontratistari bere erabakia modu frogagarrian jakinaraztea.

Jakinarazpen hori jasotakoan, kontratistak berehala jarri beharko ditu erakunde kontratatzailearen esku kontratatutako prestazioak egiteko ordura arte prestatutako agiri guztiak, kontratuaren ondorioz sortutako gainerako dokumentazio eta informazio guztia, eta erakunde kontratatzaileak kontratistari eman edo erabilarazitako agiriak. Horiek guztiak erakunde kontratatzailearen jabetzara igaroko dira.

Horrek ez dio kalterik egingo kontratua ondoren ekonomikoki likidatzeari, jarraian xedatutakoaren arabera.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoiengatik edo legez bidezkoak diren beste edozein arrazoirengatik kontratua suntsiarazteak eragin ditzakeen erantzukizun ekonomikoak kontratua benetan suntsiarazi ondoren likidatuko dira; horrek ez du eragotziko erakunde kontratatzaileak kontratua gauzatzen jarraitzea.

Suntsiarazpen-kasu guztietan, kontratistak, printzipioz, benetan egindako eta onartutako prestazio guztien prezioa jasotzeko eskubidea izango du.

Kontratua kontratistari egotz dakiokeen edozein arrazoirengatik suntsiarazten bada, karatulako 25. puntuan aurreikusitako zenbatekoa sortuko da erakunde kontratatzailearen alde, bidezko diren kalte-galeren ordainketa guztiez gain, modu metagarrian. Bi zenbatekoak behin betiko bermetik eta kontratistari ordaintzeko geratzen den preziotik kenduko dira; soberakina dagokion erreklamazioaren bidez eskatuko da. Hala ere, aurrekoari kalterik egin gabe, SPKLren 313. artikuluaren 3. apartatua berariaz aplikatuko da, hau da:

a) Klausula honen h.1 letran aurreikusitako suntsiarazpen-kasuetan, kontratistak, kontzeptu guztiengatik, kontratuaren adjudikazio-prezioaren % 3ko kalte-ordaina (BEZa kanpo) jasotzeko eskubidea baino ez du izango.

b) Klausula honen h.2 letran aurreikusitako suntsiarazpen-kasuetan, kontratistak eman gabe geratu diren zerbitzuen adjudikazio-prezioaren % 6 jasotzeko eskubidea izango du, kontzeptu guztiengatik eta industria-etekin gisa (BEZa kanpo).

Azkenik, erakunde kontratatzailearen eta kontratistaren arteko adostasunez suntsiarazi ahal izango da kontratua; kasu horretan, alderdien eskubideak baliozkotasunez hitzartutakora egokituko dira.

34. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratua izaera pribatukoa da. Prestaketari dagokionez, administrazio-klausula

partikularren agiri honek eta preskripzio teknikoen agiriak arautuko dute; adjudikazioari dagokionez, administrazio-klausula partikularren agiri honek, preskripzio teknikoen agiriak eta, horietan aurreikusi gabekoari dagokionez, SPKLn horretarako ezarritako arauek arautuko dute (administrazio publiko ez diren baina botere adjudikatzaile diren sektore publikoko erakundeek egindako eta erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuetarako).

Ondorioei eta azkentzeari dagokienez, administrazio-klausula partikularren agiri honek, preskripzio teknikoen agiriak eta, horietan aurreikusi gabekoari dagokionez, zuzenbide pribatuko arauek arautuko dute kontratua. Nolanahi ere, SPKLren 319. artikuluan ondorioei eta azkentzeari buruz ezarritako arauak aplikatuko zaizkio kontratuari. Horrez gain, SPKL eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen 1098/2001 Errege Dekretua aplikatuko dira agiri honek arau-testu horietara berariaz jotzen duen kasu guztietan.

35. JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordena izango da eskuduna kontratuaren prestaketari, adjudikazioari eta aldaketei buruzko auziak ebazteko, azken horien aurkaratzea SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzean oinarritzen bada eta aldaketa horrek adjudikazio berri bat behar zuela uste bada.

Kontratuaren prestaketaren eta adjudikazioaren arloan emandako egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko titularrari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera; edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, 29/1998 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Jurisdikzio-ordena zibila izango da eskuduna kontratuaren ondorioei eta azkentzeari buruz alderdien artean sortzen diren gatazkak ebazteko, klausula honen lehen paragrafoan aipatutako kontratu-aldaketak izan ezik.

I. eranskina. Erantzukizunpeko adierazpenaren eredua

[…] jaunak/andreak, helbidea […] eta NAN zenbakia […] dituenak, bere izenean edo […] ordezkatuz (helbidea […] eta NAN edo IFK zenbakia […]), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duela eta «Euskal Autonomia Erkidegoko negu-pasako urhegaztien erroldak, 2027ko denboraldia» zerbitzuaren lizitazioaren berri izan ondoren,

ADIERAZTEN DU:

Lehenengoa. Eskaintza hau aurkezten den egunean, Fundación Hazi Fundazioarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintza guztiak eta administrazio-klausula partikularren agirian eskatutako gaitasun- eta kaudimen-betekizun guztiak betetzen dituela.

Bigarrena. Eskaintza hau aurkezten den egunean, kontratuaren xede den jarduera egiteko behar diren baimenak dituela.

Hirugarrena. Eskaintza hau aurkezten den egunean, ez dagoela Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuetan sartuta.

Laugarrena. (Eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko beste erakunde batzuen baliabideetan oinarritu nahi bada sartzekoa): Eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, […] erakundearen kaudimena eta baliabideak erabili nahi dituela; erakunde horrek bere kaudimena eta baliabideak kontratuaren iraupen osoan haren eskura jartzeko konpromisoa hartu duela, eta, dagokionean, administrazio-klausula partikularren agirian ezarritako moduan egiaztatuko duela.

Bosgarrena. (Atzerriko enpresen kasuan sartzekoa). Kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako Espainiako edozein jurisdikzio-ordenatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dela, eta, hala badagokio, legokiokeen atzerriko foruari uko egiten diola.

Seigarrena. Erakunde kontratatzaileak lizitazioa dela-eta bidali beharreko edozein jakinarazpen jasotzeko lehentasunezko bide hau izendatzen duela:

- ☐ Posta elektronikoa.

- ☐ Posta ziurtatua.

Nolanahi ere, jakinarazpenetarako datu hauek adierazten dira:

- Helbide elektronikoa: […].
- Posta-helbidea: […].
- Harremanetarako telefonoa: […].

Zazpigarrena. Berariaz onartzen duela erakunde kontratatzaileak lizitazio-, adjudikazio- eta gauzatze-prozesutik (adjudikaziodun suertatuz gero) eratorritako datu guztiei gardentasun instituzionala ematea, prozesua amaitu arte.

[…](e)n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n.

[Sinadura]

II. eranskina. Formulen bidez ebaluatu beharreko irizpideei buruzko proposamena

[…] jaunak/andreak, helbidea […] eta NAN zenbakia […] dituenak, bere izenean edo […] ordezkatuz (helbidea […] eta NAN edo IFK zenbakia […]), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duela eta «Euskal Autonomia Erkidegoko negu-pasako urhegaztien erroldak, 2027ko denboraldia» zerbitzua kontratatzeko prozedura ireki sinplifikatuaren bidezko lizitazioaren berri izan ondoren,

ADIERAZTEN DU:

1. Proposamen honen bidez kontratuko sorta batera edo batzuetara aurkezteko asmoa duela (adierazi):

   □ 1. sorta (Araba)

   □ 2. sorta (Bizkaia)

   □ 3. sorta (Gipuzkoa)

2. Aipatutako sorta edo sortei dagokienez kontratua baldintza hauen arabera gauzatzeko konpromisoa hartzen duela:

   Proposamen ekonomikoa (aurkezten den sorta bakoitzerako)

   - *…….. € (BEZik gabeko prezioa).*
   - *…….. € (BEZa barne duen prezioa).*

   Landa-lanak egiteko atxikitako langileen esperientzia espezifikoa

   Datuen kalitatea kontrolatzeko sistema berariaz onartzea

3. Kontratua arautzen duten kontratu-agiriak ezagutzen dituela eta berariaz eta osorik onartzen eta betetzen dituela.

[…](e)n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n.

[Sinadura]